

5. AKTA

2003ko apirilaren 29an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

TOKIA: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

DATA: Bi mila eta hiruko apirilaren hogeita bederatzian.

ETORRIAK: Joseba X. Portugal Arteaga j.

Rikardo del Pozo Gil de Albornoz j.

Obdu Lorenzo de Dios a.

Lehendakaria: Joan Karlos Alduntzin Alkate j.

Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian goian aipatu zinegotziak bildu dira arauz kurtsatu eta publikatu den deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko Aingeru Ezkerra Andueza funtzioz Idazkaria bertan delarik. Ez du ezin-etorria agertu Anjel Ouviña Vidal jaun zinegotziak.

Lehendakaritzak konstataturik Udalbatza legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekiztat eman du 18:00etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekinez.

1.- Aurreko batzarraldiko akta, 03-03-31koa eta 4.a, irakurri eta onartzea.

Bertakoen kontsiderazioan jarririk atalburuan aipatzen den akta, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez erabaki du bere osoan ontzat eman eta dagokion Aktaliburuan transkribatzea.

OGASUNA

2.- 3/03 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea 3/03 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda, BERREHUN ETA BI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMAIKA EURO ETA BERROGEITA SEI ZENTIMOKOA (202.581,46 euro)

3.- Eusko Jaurlaritzaren menpeko Gizarte Larrialdiko egoerei Laguntza Ekonomikoa.

Ikusirik 2003ko martxoaren 31ko Gizarte Zerbitzuen Arduradunaren proposamena eta Eusko Jaurlaritzaren menpeko Gizarte Larrialdiko onuradunen zerrenda, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 37.766 euroko inportez.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-306/03 Baimenduaren kargura.

4.- Udalaren menpeko Gizarte Larrialdiko egoerei Laguntza Ekonomikoak. 2/03 proposamena.

Ikusirik 2003ko martxoaren 31ko Gizarte Zerbitzuen Arduradunaren proposamena eta Udalaren menpeko Gizarte Larrialdiko onuradunen zerrenda, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 10.192 euroko inportez.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-307/03 Baimenduaren kargura.

5.- Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoetan modifikazioa.

Ikusirik Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoetan egindako modifikazioez 2003ko apirilaren 7ko Gizarte Zerbitzuen Arduradunak aurkeztutako proposamenak, 1/03 proposamenari dagozkionak, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Espedientean agertzen diren onuradunen 1/03 zka. daraman proposamenari dagozkion Laguntzak modifikatzea aipatzen diren arrazoiak direla eta, bertan agertzen diren kantitateak anulatuz.

BIGARREN.- Aipatu inporteak Gizarte Larrialdira itzultzea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzaitzaren sailari bidaltzea.

6.- Kirol entitateei subentzioak. Kirol Patronatua.

2003ko apirilaren 1ean Kirol Patronatuak egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Kirol entitateei subentzioak banatzeaz 2002ko abenduaren 31n KOXTAPE ARRAUN ELKARTEA-k tartekaturiko Errekurtsoa ontzat ematea.

BIGARREN.- Ondoren aipatzen diren kirol entitateei banatzeko subentzioen zerrenda berria onartzea:

ELKARTEA	PUNTUAKETA	DIRULAGUNTZA
1. SanPedrotarra C.F.	70	2.497,040 euro
2. SanPedrotarra Arrauna	59	2.104,648 euro
3. Usoa, arrantza, ehiza elkarte	40	1.426,880 euro
4. SCR D Donibane	50	1.783,600 euro
5. SanPredotarra Txirindularitza	33,5	1.195,012 euro
6. Jaizkibel Mendizale Taldea	46,5	1.658,748 euro
7. Club Atlético Trintxerpe	107	3.816,904 euro
8. Club Deportivo Pasajes	76	2.711,072 euro
9. Donibane Eskubaloia	64	2.283,008 euro
10. Pasaiako Trintxer Hockey Elk.	47	1.676,584 euro
11. Itsasmendi KKE	49,5	1.765,764 euro
12. Onintza KE	29,5	1.052,324 euro
13. Pasai Antxio Txirindulari Elk.	32,5	1.159,340 euro
14. Pasai Donibane Koxtape Arraun Elk.	130	4.637,360 euro
15. CD Trintxerpe-Azkuene	67	2.390,024 euro
16. Itsastarrak Mendi Taldea	56,5	2.015,468 euro
17. Club Atlético Illunbe	59	2.104,648 euro
GUZTIRA	1.017	PUNTU 1= 35,672 euro

DIRULAGUNTZA GUZTIRA:
36.279,12 : 1.017 = 35,672 euro/puntuko

Hau guztia 1 0600.481.452.10.01 partidaren eta A-1941/02 Baimenduaren kargura.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiokeen errekurtsoekin.

ONDAREA

7.- Ondare-erantzukizunaz hainbat erreklamazio.

A) **Monika Martínez Moreno andreak formulatu erreklamazioa plazan egiten ari diren obregatik zorua gaizki dagoelako maiatzaren 25ean Antxoko Azokaren ezker Aldeko atearen sarreran izandako erorketa dela eta.**

Ikusirik MONIKA MARTINEZ MORENO andreak egindako erreklamazioa maiatzaren 25ean Antxoko Azokaren ezker aldeko atearen sarreran erori zelako.

Ikusirik Derrigorrezko Desjabetzaren Legeko 121.2 artikulua, martxoaren 26ko R.D.-ko 1.3 artikulua zeinen bidez onartu baitzen Herri Administrazioen gaiaz Prozeduren Arautegia eta Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Testu Bateratuko 97. artikulua.

Entzute-izapidea emanik Antxo Iparraldea C-1 delakoaren Urbanizazioaren obra publikoaren enpresa kontratistari, Construcciones Donostiri, helbidea Donostiako Erauso kaleko 11n, eta baita obra-zuzendaritzari ere, alegaziorik aurkeztu gabe.

Ikusirik Udal Aparejadorearen txostena non esaten den aipatu obren eremua espaloia zela, hormigoia botata zegoela eta baldosa jartzeko prestatuta eta hormigoizko arekaren eta espaloia zoruaren arteko nibelaren desberdintasuna 7 cm-koa dela kontuan izanik eta momentu horretan Azokara sartzeko modu bakarra hortik igarotzea izanik, egurrezko tabloi bat jarri zela desberdintasuna salbatzeko eta horrela estropuzo eginda lurrera erortzea ekiditeko.

Kontuan izanik nolana ere gertatuak ez direla proiektuaren edota Administrazioaren okerren bat izateagatik, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- MONIKA MARTINEZ MORENO andreak formulatu ondare-erreklamazioa gaitzestea.

BIGARREN.- Erreklamatzailari esatea kasu balitz enpresa kontratistari erreklamatu beharko diola eta jurisdikzio zibilaren aurrean.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

B) Mikel Arregi Izagirre jaunak formulatu erreklamazioa 2001eko uztailaren 25ean Pasai Donibaneko sokamuturrean erori eta izandakoak ondorioak direla eta.

Ikusirik 2001eko uztailaren 25ean Pasai Donibaneko jaietan bigantxak eraso eta erorita jasandako kalteak direla eta.

Ikusirik CASER aseguru-konpainiaren idazkia 2003ko otsailaren 18koa, non seinalatzen duen bere esku daukan dokumentazioa aztertuta Udal honi ezin zaiola esleitu erantzukizunik ezta zabarkeriarik ere, zeren eta sokamuturraren antolamendua eta/edo funtzionamendua egokia izan baitzen, eta istripua gertatu baitzen zauritua kalera sartu zelako, egiaztatu gabe ea bigantxaren ibilera amaitua zen ala ez, momentu hau izaten baita bi suziri botatzekoa amaitu dela adierazteko, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- MIKEL ARREGI IZAGIRRE jaunaren erreklamazioa gaitzestea goian emandako arrazoiak direla eta.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkioken errekurtsioekin.

C) David Ventoso Romay jaunak formulatu erreklamazioa Euskadi etorbideko kalean “La Sonesa”-ren parean 2003ko otsailaren 24an SS-5402-BB matrikula duen bere ibilgailuan izandakoa kalteak direla eta edukigailu batekin, haize handia medio.

Ikusirik David Ventoso Romay jaunak formulatu erreklamazioa Euskadi etorbideko kalean “La Sonesa”-ren parean 2003ko otsailaren 24an SS-5402-BB matrikula duen bere ibilgailuan izandako kalteak direla eta edukigailu batekin, haize handia medio.

Ikusirik Udaltzaingoak 2003ko otsailaren 24ean luzatutako txostena, zeinen bidez esaten baita aipatu ibilgailua ikusita, ibilgailuaren ezker aldeko atzerako ispiluaren ertz batean kalteak izateagatik.

Ikusirik Zerbitzuen Sailak 2003ko martxoaren 21ean emandako txostena, non zehazten den aipatu edukinontziak galgaz hornituak daudela baina hala eta guttiz ere posible dela desplazatzea.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- DAVID VENTOSO ROMAY jaunaren erreklamazioa ontzat eman eta 82,94 euro ordaintzea kalteengatik.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

D) Andres benali Traba jaunak egindako erreklamazioa San Pedroko ludotekaren teilatua erorita 3261 CBB matrikula duen ibilgailuak izandako kalteengatik, 2003ko urtarrilaren 31n haizete handia izan zelako.

Ikusirik ANDRES BENALI TRABA jaunak egin erreklamazioa Pasai San Pedroko ludotekaren teilatua erorita 3261-CBB matrikula duen ibilgailuak izandako kalteengatik, haizete handia zegoelako.

Ikusirik Udaltzaingoak 2003ko urtarrilaren 31n eta otsailaren 5ean emandako txostenak, non konstarazten den ibilgailuak mailatuak dituela sabaian eta eskuin aldeko atean eta uralitazko hondakin ugari lurrean Ludotekaren teilatutik erorita, hurrenez hurren.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- ANDRES BENALI TRABA jaunak formulatu erreklamazioa ontzat eman eta 546,77 euroko kantitatea abonatzea.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

E) Maria Jose Gago Lopez andreak egin erreklamazioa 2002ko uztailaren 26an Azkuene kaleko 34an SS-8823-AP zabor -kamioiak SS-4478-AK ibilgailuari egindako kalteak direla eta.

Ikusirik MARIA JOSE GAGO LOPEZ andreak egin erreklamazioa 2002ko uztailaren 26an Azkuene kaleko 34an SS-8823-AP zabor-kamioiak SS-4478-AK ibilgailuari egindako kalteak direla eta.

Ikusirik Aseguru Konpainiak 2003ko apirilaren 10ean luzatutako idazkia.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- MARIA JOSE GAGO LOPEZ andrearen erreklamazioa gaitzestea.

BIGARREN.- Intereastuari seinalatzea bere erreklamazioa Udal honek kontratatu zuen Aseguru Konpainiari egin behar diola, "Previsión Española"-ri.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

- Gaizerrendaz kanpo eta bertako zinegotziek aurrez berronetsirik gaizerrendan sartzea, ondorengo akordioak hartu dira:

8.- Jose Luis Kastresana Robredo jaunaren taxi-lizentzia, 33 zka. duena, Gabriel Elcano de Ika Fuentea jaunari transmititzea.

Zerbitzu, Sare eta Mantenimenduaren Udal Batzorde Informatiboak 2003ko apirilaren 22an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Ontzat ematea 2002ko maiatzaren 3an hil zen JOSE LUIS KASTRESANA ROBREDO jaunaren alarguna eta oinordeko unibertsala den M^a TERESA SANCHEZ PEREZ andrearen eskaera GABRIEL ELKANO DE LA FUENTE jaunaren alde 33. taxi-lizentzia transmititzeko hurrengo baldintzekin:

- Interesatuak akordio honetatik hasita 8 egunen barruan hurrengo dokumentazioa aurkeztu behartko du Udal Bulegoetan:
 - Zerbitzuko ibilgailuaren zirkulazio-baimena.
 - VT hiriarteko arauzko baimena.

BIGARREN.- Interesatuak Udal Gordailuzaintzan bidezko udal-eskubideak ordaindu beharko ditu interesatuari berari likidatuko zaizkionak akordio hau indarrean sartzeko baldintza bezala.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

9.- Pasaiako Antzerki Tailerrari subentzioa.

Kultura eta Hezkuntzako Zinegotzi Delegatuak 2003ko apirilaren 9an egindako proposamenez, Gobernu Batzardeak bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENENGO.- PASAIKO ANTZERKI TAILERRA-ri 9.360 euroko ordainketa onartzea 2003ko subentzioari dagokiona, hau guztia indarreango udal aurrekontuko 05-481-451-10-02 partidaren eta A-363/03 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiekeen errekurtsioekin.

10.- Artisautza ikastaroak 2002/2003 antolatzeko subentzioa.

2003ko apirilaren 9an Kultura eta Hezkuntzaren Udal Batzarde Informatiboak emandako diktameneko proposamenez, Gobernu Batzardeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Ondoren Aipatzen diren Elkargoei 2002/2003ko Artisautza Ikastaroak antolatzedko subentzioak ematea:

- | | |
|-------------------------|------------|
| - Bonantza Auzo Elkarte | 900 euro |
| - Kexaldi | 1.350 euro |
| - C.A.S. Azkuene | 1.800 euro |
| - Lagun Artea | 900 euro |

Guztira 4.950 euro

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 05-481-451-10-01 partidaren eta A-364/03 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea Legozkiekeen errekurtsioekin.

11.- Pintura lehiaketa antolatzeko Trintxer Kulturala subentzionatzea.

2003ko apirilaren 9an Kultura eta Hezkuntzaren Udal Batzarde Informatiboak emandako diktameneko proposamenez, Gobernu Batzardeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- TRINTXER KULTURALi ondorengo Arte Lehiaketak antolatzeko subentzioak ematea:

- 7º “ Pasaia Hiria” Argazki Lehiaketa	1.082 Euro
- 7º Certamen de Pintura “Pasaia Hiria” Pintura Lehiaketa	1.082 Euro
Guztira	2.164 Euro

Hau guztia Indarreango udal aurrekontuko 05-481-451-10-01 partidaren eta A-365/03 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsoekin.

12.- Gipuzkoar Aurrekuaren Euskadiko 23. Txapelketa antolatzeko Alkartasuna Dantza Taldeari subentzioa.

2003ko apirilaren 9an Kultura eta Hezkuntzaren Udal Batzorde Informatiboak emandako diktameneko proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- ALKARTASUNA DANTZA TALDEARI 3.200 euroko subentzioa ematea Gipuzkoar Aurrekuaren Euskadiko 23. Txapelketa antolatzeko.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiekeen errekurtsoekin.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 05-481-451-10-01 partidaren eta A-366/03 Baimenduaren kargura.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 19:00etan amaitutzat eman da batzarraldia, honen eduki guztia kata honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.